

Kultura Eskola deialdia

1. Jarduera proposatzen duenaren datuak

Aurkezlearen izena: Maider Fernandez Iriarte

NAN zenbakia: 72508169W

Helbidea: Avenida de Madrid, 10, 9º C

Herria: Donostia

Postakodea: 20011

Harremanetarako pertsonaren izena: Maider Fernandez Iriarte

Postaelektronikoa: zinemahabian@zinemahabian.org

2. Proposatzen den jarduerari buruzko laburpena

Izena: Zinema (H)abian – Esperientziak

Zinema (H)abian – Esperientziak Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketarako ikasurte guztietara dago zuzendua.

“Zinema (h)abian” zinemaren bidezko eta zinemaren beraren pedagogia eskola eta institutuetan lantzeko asmoa duen proiektu da. Proiektua eta bere edukiak ikuspuntu artistiko, pedagogiko eta sozialak kontutan hartuz garatuak izan dira eta hiru aspektu hauek uztartzen dituzte. Zinema (h)abian-ek helburu nagusi honako hauek ditu:

- Ume eta gazteek zinema arte, sorkuntza eta kultura gisa aurki dezaten.
- Hezkuntzaren testuinguruan sorkuntza zinematografikoaren ahalmen pedagogikoak garatzea.
- Irakasleen formakuntza, artea eta sormen prozesuak beraien eguneroko jardueran integratu ditzaten ahalbidetuz.

- Ikasleen artean balore demokratikoak (parte hartzea, inklusioa, eskubide eta betebeharren ezagutza, tolerantzia, elkarlana, elkar ezagutza, errespetua eta abar) sustatzea.
- Ikasleen artean bere ingurunearen (auzoaren, herriaren) orainaren eta iraganaren ezagutza eta estima ahalbidetzea.
- Belaunaldi ezberdinen arteko eta ikastetxea eta bere ingurunearen arteko lotura, elkar ezagutza eta elkarlana ahalbidetzea, horrela kohesio soziala indartu eta norbanakoen eta bizilagunen autoestima hobetzeko.
- Proiektuaren osaketa ikerkuntza aplikatuaren laborategi gisa ulertzea, esperimentazio eta hausnarketa espazio gisa. Ikasgelan gertatzen diren esperientzien analitika abiatuta, proiektuaren arduradunek zinegile eta irakasle partehartzeekin batera hezkuntza-testuinguru anitzetara zabal daitezkeen proposamenak, materialak eta metodologiak garatzen ditu.

Zinema eginez inguruko errealitatea arretaz begiratzen, erabakiak partekatzen eta bakoitzaren erabakiak azaltzen, taldean lan egiten eta eginbeharrak eta ardurak bere gain hartzen ikasten da; sormen gaitasuna eta ingurunearekiko sentsibiltatea ere garatzen da. Zinema arte, sorkuntza eta kultura dela uste dugu eta beraren aniztasunaren aberastasuna aditzera emateaz gain, proiektuaren bitartez ikasgai askoren edukiak era transbertsal batean lantzen ditugu (hizkuntzak, gizarte-zientziak, musika, ikusmen heziketa, plastika eta abar), batez ere idazmena, mintzamina, emozioak eta ingurunearen ezagutza.

Zinema (h)abian-en honako bereizgarri nagusi hauek ditu: Zinegile baten presentzia ziurtatzen du ikastetxean, eskola-ordutegiaren barnean irakasleekin elkarlanean proiektua burutzen, eta horrela, irakasleen formakuntza ahalbidetzen du; sorkuntza praktikoa eta filmen ikuskaketak uztartzen dituen metodologia berritzaile bat proposatzen du; eta ikasleak ikasketa prozesuaren erdian jartzen ditu, esperientzian oinarritutako metodologia pedagogiko bat jarraituz.

3. Jardueraren deskribapena

Zinema (h)abian-Experientzia jarduera bakoitza 15 ordu irauten du, zein ikastetxearen antolakuntza beharren arabera 5 edo 6 saiotan (lantegietan) banatu daitezke. Saio bakoitzak 2-4 orduko luzaera izango du eta zinegile bat eta irakasle baten artean gauzatzen da (bi irakasleen partehartzea ere posible da). Saio hauek eskola orduetan garatzen dira eta zinemaren berariazko edukiak irakasgai ezberdinetako edukiekin era transbertsal batean elkartzen dira. Proiektuak zinema sorkuntzaren arlo guztiak zeharkatzen ditu: Zinema ikusi (erreferentziako zinegileen pelikulan zatiak), filmatu eta filmatutakoa editatu, film laburrak sortuz. Gainera, talde lana eta bakarkako lana bateratzen ditu.

Saio bakoitza aukeratutako pelikula zati labur batzuen analisiarekin hasten da. Analisi honen helburua ikasleen sentsibilitate estetiko-zinematografikoa garatzea da, zinemaren bidez tokien oraina eta iraganaren, argi ezberdinak, eguraldi aldaketak, jendearen egunerokotasuna edo emozioak nola islatu eta (ber)ezagutu daitezken ulertuz eta horrela, mundua eta errealitatea zinegileen begiradaren bitartez ikusten ikasiz.

Analisi honetan eztabaidatu, ikusi eta ikasitakotik abiatuz ikasleek beraien mugikorrek edo eskolan eskuragarri izan ditzaketen kamera txikiak erabiliz eskola inguruan ariketa zinematografiko txikiak egiten dituzte, ikusitakoa era praktikoa esperimintatu eta barneratuz. Hasieran ariketa hauek taldeetan banaturik eta irakasle edo zinegilearen laguntzarekin gauzatzen badira ere, ondoren ikasleek praktika hauek eskola orduetatik kanpo beraien aisialdi garaian egiten dituzte. Ariketa hauei esker ikasleek beren ingurune (auzoko, herriko) tokiak (bere balio estetiko, historiko eta sozialekin) eta bertan bizi diren pertsonen (bereziki pertsona helduen) egunerokotasuna eta apartekotasuna (historia txiki eta handien protagonista direla jabetuz) zinemaren bidez islatzen ikasten dute, hori egitean ikasle bakoitzak bere ingurunearekiko dituen sentimendu eta lotura emozionalak agerian geratzen direlarik. Filmaturikoa gelan ikuskatu eta guztien artean aztertzen da, eta honi esker ingurunearen ezagutza eta berarekiko sentsibilitatea garatuz joaten da. Horrez gainera, hurrengo saioetarako ideia eta filmatzeko proposamen berriak sortzen dira. Filmaturiko material guztiaren aukera batekin ikasleek bi edo hiru filme labur editatzen dituzte, beraien errealitatearekiko ikuspuntu berri bat islatuz. Filme labur hauek Zinema (h)abian – Cinema en curs-en parte hartzen duten Gipuzkoako zein Estatuko, Alemaniako eta Txileko beste ikasle taldeekin partekatzen dira

(Web-orriaren bidez), testuinguru sozial eta kultura ezberdinetako ikasleen elkar ezagutza ahalbidetuz. Zinematoki batean talde parte-hartzaile guztiek eginiko filme-laburren aurkezpena egitea ere aurre ikusten da.

4. Jardueraren alderdi artistiko-kulturalari buruzko txostena.

Zinema (H)abian-ek zinema arte, sorkuntza eta kultura dela uste dugu, ezagutza modu bat eta ez denbora pasa soil bat, errealitatea deskubritu, bestekin erlazionatu eta egunerokotasuna estimatzeko modu bat. Proiektuak atzoko eta gaur egungo autore-zinema hartzen du erreferentzia moduan, ez era abstraktu batean, baizik eta ikasleen (eta irakasleen) ohizko ikus-azturak hautsi eta zinemarekiko eta beraien errealitate eta ingurunearekiko begirada berriak ahalbidetzeko tresna bezala. Proiektuan parte hartzen dutenen gehiengo zabal batek lehen aldiz ikuskatu eta ezagutzen ditu auto-zinemako egile esanguratsuenetako batzuk eta beraien pelikula garrantzitsuenak, hala nola Chantal Akerman, Peter B. Hutton, Jean-Luc Godard, José Luis Guerín, Johan Van der Keuken, Wim Wenders, Agnès Varda, Jonas Mekas, Artavazd Pelechian, Nicolas Philibert, Harun Farocki edo Raymond Depardon.

Autore-zinema mota honek berezkoa duen jarrera (errealitatearekiko eta zinema egiteko garaian) eta proiektuaren estruktura pedagogikoari esker ikasleak baliabide eta kontzeptu artistikoak eskuratzen dituzte, era errez eta merke batean (ia edozeinek eskuragarri izan ditzakeen baliabideekin, adibidez telefono mugikorrekin eta dohaineko zine –edizio programekin) zinema egiten erakutsiz eta zinema bakoitzaren sentimenduak adierazteko hizkuntza bat izan daitekeela azalduz. Hau dela eta Zinema (H)abian-ek zinema egiteko modu dokumentalari garrantzia handia ematen dio, ikasleek (eta irakasleek) eskolaren ingurunearekin eta beraien errealitatearekin daukaten erlazioari eta berarekiko ezagutza proiektuaren oinarri bihurtuz. Helburua errealitatea zinemaren begirada bereziaren bitartez ikusten ikastea da, horri esker errealitate horretan ezohizkoa, berezia den hori aurkituz eta ariketa praktikoetan zinema-hizkuntzaren bidez islatuz. Eta horrela errealitate hori bere aberastasun guztiekin ulertu, errespetatu eta balioetsiz.

Ikasle, irakasle eta zinegile profesional baten arteko elkarlana proiektuaren beste ezaugarri bat da. Azken honek autore-zinemarekiko maitasuna eta zaletasuna, zinegile eta pelikula ezberdinekiko miresmena eta zinema sorkuntzarako grina partekatzen ditu ikasle eta

irakasleekin. Zinemak berezkoak dituen ezaugarri teknikoak azalduz haratago, zinegileak parte-hartzaileen adimen eta begirada estetikoaren garapena ahalbidetzen du, zinemaren aberastasun eta gaitasun guztiak azaleratuz.

5. Jardueraren arlo pedagogikoaren buruzko txostena

Saio guztiak zinegile eta irakasleen artean, eskola-orduetan eta irakasgai anitzekin lotuta (hezkuntza eta literatura, giza zientziak, musika, bisual eta plastika eta abar) burutzen dira, eta mintzaera, idazmena eta ikasleen garapen emozionalari arreta berezia ematen zaio. Proiektuaren metodologiak norabide bakarreko (heldua/irakaslea >> ikaslea) eta frontala den irakaskuntza baztertu eta ikasleak ikasketa eta sormen prozesu guztien protagonista bihurtzen ditu, proiektua elkarlana, guztien arteko elkarrizketa eta elkarrekin izandako esperientzietan oinarritzen delako. Gainera, filmaketan zehar karguak txandaka aldatzen doaz, ikasle guztiak lan guztiak garatzen dituzten arte; muntaia talde txikien eta handiagoen lana uztartuz egiten da.

Bururutako ebaluazio anitzek azaltzen dute proiektuan parte-hartzearen onurak maila ezberdinetan nabarmentzen direla:

Ikaslek zinema mundu berri bat deskubritzen dute, artea eta sormena uztartzen dituen, eta mundua eta errealitatea ulertzeko eta beraien sentimenduak adierazteko tresnak ematen dizkiena.

Proiektua eskola orduetan eta irakasgai anitzekin lotura burutzen denez, proiektuak ikasgelako egunerokotasuna eta estrukturan aldatu eta ikasleen oinarrizko gaitasunak (hizkuntza gaitasunak, gaitasun sozial, emozionalak eta teknikoak eta abar) hobetzen ditu. Norabide bakarreko pedagogiak baztertu eta sormen prozesu eta elkarlanean oinarritutako metodologia berritzaile bat jarraitzen denez, ikasleak estimulu eta sustagarri berriak jasotzen dituzte, beraien ikasteko motibazioa hobetuz. Proiektuak helburu eta zeregin argiak zehazten dituzenez, ikasleak hasiera hasieratik era aktibo, kontzentratu eta autonomo batetan lan egiten hasten dira. Prozesu guzti hauek irakasgai ezberdinen edukiekin loturik daudenez, ikasleak eduki ezberdinak era “inkontziente batean” eta banakako eduki bakoitza osotasun konplexuago batekin eta errealitate konkretuekin dituzten loturak ulertuz bereganatzen dituzte.

Elkarlanak eta kontsentsu bidez guztion artean hartutako erabakiek daukaten garrantziari esker, Zinema (H)abian-ek ikasleen garapen pertsonala eta gaitasun sozialak sustatzen ditu. Proiektuak proposatzen duena egin ahal izateko, ikasle bakoitzak bere iritzia adierazten eta argumentatzen, besteena entzun eta errespetatzen, elkarlan egiten eta ardurak hartzen ikasi behar du, hau da, elkarbizitza eta demokrazia sustatzen dituzten baloreak ikasi eta jarraitu behar ditu. Honi esker, ikasgelako mikrokosmosa eta bertan ikasle bakoitzak ezarriak dituen roll eta identitatea zein hierarkiak eraldatzen dira. Aspektu hau bereziki esanguratsua da motibazio gutxi, baztertuak edo bakartuak diren ikasleentzat.

Saio bakoitzean burututakoaren eta filme laburren aurkezpenak (web-orriko “Lantegien egunerokoa” atalean) eta beste ikasle talde parte-hartzaileekin harremanak (web-orriaren bidez) ikasleen bereganako konfiantza eta segurantza indartzen dute, eta taldeak osotasun bezala zein bakarkako bakoitzak emaitza lortzeko izan duen garrantziaren onarpena jasotzen du.

Azkenik proiektuak irakasleen artean daukan eragina azpimarratu nahi genuke. Irakasleak proiektuaren funtsezko osagarriak dira eta bertan beraien eginkizuna funtsezkoa da. Proiektuak bere burua ikerkuntza aplikatuaren laborategi gisa, esperimenez eta hausnarketa espazio gisa ulertzen du, hezkuntza sistemaren garapena uztartzeko. Proiektuaren helburuetako garrantzitsuenetako bat irakasleen formakuntza da, non sormen prozesuetan oinarrituriko metodologia berritzaile bat ikasten dute. Zinema (H)abian partzen hartzen duten irakasle guztiek online formatuko formakuntza bat eta urteetan zehar garatutako material pedagogikoak jasotzen dituzte. Material hauek hezkuntza-testuinguru anitzetara zabal daitezkeen proposamenak, materialak eta metodologiak biltzen dituzte eta proiektuaren ondoren ere beste ikasle taldeekin ere erabili daitezke. Guzti honek balio esponentziala dauka, oraingo eta etorkizuneko ikasleen artean eragina duelako.

6. Proposamenaren egileen ibilbide profesionala eta antzeko lanetan azaldutako esperientzia.

Maidier Fernandez Iriarte (Donostia, 1988) zinegile eta hezitzailea da. Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Hezkuntza ikasketak burutu ostean Telebista, Zine eta Video

Errealizazioko goi mailako ikasketak burutu zituen (ESCIVI) eta ondoren Documental de Creación-ko ikasketak Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean.

Bere pelikulak zinemaldi eta arte zentruetan izan dira erakutsiak eta aipamen asko dituzte (Donostiako Zinemaldia, El Festival de Mar del Plata, Gotteborg, FICXixón, DA2, IVAM, FIC Uruguay edo L'Alternativa, hauetako batzuk Las chicas de Pasaik kolektiboaren baitan). Bere lanen artean "Gure Hormek" laburmetraia nabarmentzen da, zein Goya sarietarako aurrea-ukeratua izan zen eta Zinebin Euskal Zinemaren Saria Nagusia eta Malagako Festibalean laburmetraia hoberenaren Biznaga de Plata irabazi zuen 2017 urtean. Bere lehen luzemetraia, "Las letras de Jordi" (2019) Donostiako Zinemaldiko Zuzendari Berrien atalean erakutsi zen eta Festival de Cine Documental Alcances eta L'Alternativa festibaleetan bi menzio berezi irabazi zituen.

Duela 3 urtetatik Cinema en curs proiektuak lan egiten duten zinegile taldeko kide da, zein 2017tik aurrera Euskal Herrian Tabakalera eta Zine Eskola Elías Querejeta-ren laguntzarekin burutu izan da.

Hezkuntza arloan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Máster en Documental Creativo-an tutore lanak burutzen ditu eta MACBA-ren "VideoRavaleras" proiektuan ere lan egiten du. Tabakalerako mediazio taldean ere lan egin zuen, bertako "ZOOM" eta "Zine Plaza" proiektuen ardura hartuz. Hiru urteetan zehar Argazkilaritza irakaslea izan da Donostia Kultura-n eta hainbat lekuetan cinema dokumental ikastaroak eman ditu (besteak beste, Zineleku, Festival Internacional de Cortometrajes VIA XIV Verín, CCA Glasgow edo Tabakalera).

7. Jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta baliabideak.

Jardueran proposaturikoa burutzeko ikastetxe beraiek eskuragarri izan ohi dituzten baliabide teknikoak erabiltzen dira, proiektua oinarritzen den autore-zinemaren jarrera jarraituz: proiektore eta pantaila bat, ilundu daitekeen ikasgela bat (pelikula zatiak iluntasunean ikusi ahal izateko, horrela zinema tokietako esperientzia nolabait errepikatu ahal izateko), ikasle beraien telefono mugikorrak eta/edo argazki kamera digital txikiak, ordenagailuak (ikasle kopuruaren arabera, baina gutxienez 4-5 ikasleko ordenagailu bat), ordenagailu batzuetatik internetera konektatzeko

aukera eta koloretan inprimatu dezakeen inprimatzaile makina bat . Filmaren edizioa doanekoa den edizio-programa batekin egiten da.

8. Jarduera bakoitzaren aurrekontu edo prezioa.

Jarduera bakoitzak 2.950 Euroko aurrekontua (2.375 Euro + BEZ 21%) du eta era honetara banatzen dira:

Zinegilea: 1.800 euro (90 Euro x 20 ordu, aurre-prestakuntza kontutan hartuta)

Koordinazioa eta saioen jarraipena: 400 Euro

Irakasleen formakuntza (online) eta material pedagogikoak: 350 Euro

Bidai gastuak: 150 Euro

Artxibo digitalaren kudeaketa, aurkezpena eta parte-hartzaile talde ezberdinen arteko harremanen koordinazioa: 250 Euro

9. Proposaturiko jardueraren dokumentu bisuala.

Esketa honetan proiektuaren inguruko informazioa, orain arte eginiko filmak eta ariketak, lurralde ezberdinetako ikasle taldeen arteko harremanak, argazkiak, making of-ak eta abar luze bat aurkitu daiteke:

www.zinemahabian.org